

ttipi-ttapa

1991.eko Maiatzak 23

62. zenbakia

dohain banatzen da



M. PETRIRENA:

«Gaur egun
ez dago baserri
errentagarririk»

AULKIA PREST

FRANTXISKAREN SASKIA

Z.O.Z.K.E.T.A

Ekainean, aste bateko
bidai zoragarria
bi lagunendako
PALMA DE MALLORCAra

Hiru izarretako hotelean
abioia eta gastu guziak
ordainduak

Zozketarako txartelak,
bazterretan agertzen diren
komertzio laguntzaileetan
banatuko dira

Parte hartu zozketan
eta oporraldi on!



San Migel auzoa - DONEZTEBE

LEIZA
Elektrogailuak

Santiago 27 - ELIZONDO

OKANE

URDAITEGI - HARATEGIA

Kanttonberri 4 - BERA

FRANTXISKAREN SASKIA



MALDAERREKA S.A.

Bidaiak, aseguruak...

Bittiria - **LESAKA**

EROSLE

Bittiria 67 - **LESAKA**

ALTZURI
Elektrogailuak

Bittiria 41 - **LESAKA**

zer - non

4 AGENDA Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

7 HONTAZ ETA HARTAZ

8 IRAKURLEAK MINTZO

9/27 HERRIZ HERRI

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...

Almandozko bestetako koadernilloa

28 ELKARRIZKETA: "Merkatuko prezioak ikusirik, Nafarroan gaur ez dago baserri errentagarririk" dio Mikel Petrerenak

Joxemanuel Irigoien

30 KIROLAK: Berako Gure Txokoa elkarteak 60. urteurrena ospatzen du aurten

32 OSASUNA: "Poteotik alkoholismora"

Adimen Osasunerako Taldea

34 MERKATU TTIKIA

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85

Tirada: 4.500 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA

Tfnoa.: 63 11 88

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karnele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** R. Harribilaga, Oskar Txoperena, P. Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Jon, Arantxa, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton, Patxi Petrarena, Olhain Elkarrea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldia Argazkiak, Mattari, Fermin Alzuguren, AOT eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurilaritza.... **Inprimategia:** Jomisa (Irun)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa088

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248/510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614444

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia262700

Gurutze Gorria.....226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Elizondo (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzaran515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630104

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

Deialdiak

► **ETXALAR**, Maiatzaren 23an, arratsaldeko 6etan, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza Batzordearen bilera.

► **ARANTZA**, Maiatzaren 29an, arratsaldeko 6etan, Herriko Etxean, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Batzorde Erabakikorraren bilera.

Bestak

► **ALMANDOZ**, Maiatzaren 29, 30, 31an eta Ekainaren 1 eta 2an.

Botikak

► **Maiatzaren 25-26an**, Lesaka, Doneztebe eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Ekainaren 1-2an** Etxalar, Ituren eta F. Lezaun (Elizondo).

Zinea

► **LESAKA**, Maiatzaren 25ean, Arrano elkartean, arratsaldeko 6etan, "Cocodrilo Dun-dee II" filma.

► **LESAKA**, Ekainaren 1ean, Arranon, arratsaldeko 6etan, "Poltergeist" filma.

Dantzaldiak

► **LESAKA**, Maiatzaren 26an, Plaza Zaharrean, 7,30etatik aurrera, Joxelu Anaiak taldearekin dantzaldia.

► **LESAKA**, Ekainaren 2an, 7,30etatik aurrera, Basakabi taldearekin dantzaldia.

Kirolak

► **LESAKA**, Maiatzaren 26an, V. Marino Lejarreta Txirrindularitza Saria, kadete mailako txirrindularientzako, Marinoren lagunak antolatua.

Bota bertsoa



Joxe Migel Argiñarena

Gaia: Hauteskundeak

Neurria: Hamarreko nagusia

Hauteskundeak badatozkigu
bide berriak ebaki
behar dira ta abertzaleok
burua argi eduki
betiko boto ehiztari hoiek
saiatuko dira aurki
haien aurrean beti jokatu
nortasunez ta egoki
gure herrian etorkizuna
guk dezagun erabaki.

Betiko etsai izan direnak
aldatzeko esperantzan
arren esaten dizutet horren
zai egon ez gaitezkan
gure herritan euskal bizitzak
osasuna izan dezan
gure botoa ipini ezker
abertzaleen gerizan
geroa gure zai dago eta
horren dudarik ez izan.

AGENDA

Bestak

► URDAZUBI

ERREFETAK

Maiatzak 26-27

Maiatzaren 26an, 9,30etan Zikiro Jatea eta DRINDOTS taldearekin dantzaldia.

Igandean, arratsaldeko 4etan MOTO-CROSSA eta arratsean dantzaldia MODESTOrekin.

Kirolak

► LESAKA

BORTZIRIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

Izenemateko epea: Maiatzaren 26a: 1000 pt.
Non: Kaminero Ostatuan eta Beti Gazteren egoitzan (Alondiga).
Kopa sisteman jokatu da eta talde bakoitzean gehienez 9 jokalarri apunta daitezke (3 federatuak).
Partiduetan 5 jokalarri ariko dira (atezaina eta bertze lau).

Gastronomia

Izokia hojaldrean barazki eta zigalaz betea

Osagaiak

6 lagunendako:

2,5k. izoki freskua, 24 zigala, porrua, 300gr. azenario, 150gr. gurina, gatza, piper zuria eta 650 gr. hojaldre. Zigalak zuritu eta su biziz 3' 50 gr. gurinean egiten ditugu, porruaren zati zuria eta azenarioak xerra finetan



Imanol Orejak emana

ANSONEA Jatetxea - BERA

moztu eta geratzen den gurinean 5' suan jarriko ditu-

gu. Zigalak eta barazkiak nahasi gatza eta piperrez. Izokiari hezurra kendu eta bi xerrei gatza eta piperra botako diegu. Zm. erdiko hojaldre zati baten gainean izoki xerra bat jarri azala behiti begira gainean zigala eta barazkiak banatu, bertze izoki xerra azala goiti begira eta hojaldrearen bertze zatia, bazterrak kendu arrai forma emanez eta labean sartu 45' 230° C tan.

Baserriko feria

► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kiloak): 5.900pzta. **Zerri gizona** (95-100): 174 pzta./kilo bizirik. **Urdamak**: 65-85 pzta./kilo bizirik.

► BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....525-540
1.koa.....480
2.koa.....460

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal Extra.....540
1.koa.....480-500
2.koa.....460
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.
Baztango aretzea: 625 pzta/kg. Kanal.
•Behi zaharrak:
Behi nabar gizona: 300 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri

ona: 380 Pzta /Kg. Kanal.

•Aretze tikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 12.000 eta idixkoak 22.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 28.000 eta idixkoak 35.000 pzta

► BILDOSKIA

• 12 kgkoak 430-440 pzta bizirik

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.

FUNERARIA ZERBITZUAK

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

Irratia

Xorroxin Irratia

Baztan-Malerrekarako eguneroko programazioa

- 8,00tik 12etara: Musika.
- 12etan: Egunon.
- 12,05: Etxeko lanak.
- 12,15: Konkurtso kulturala.
- 12,30: Egunkariak begiratzuz.
- 12,45: Nafarroan zehar
- 13,00: Herriz herri.
- 13,25: Oharrak, etab.
- 13,30: Gaur (Egunero gai desberdin bat).

Ondoren, konkurtsoa, dedikatoriak eta musika arratsalde osoan zehar.



Zinema

Amantes

Vicente Aranda
España 1991

Inongo prisarik gabe baino gauzak bere haritik utzi gabe Vicente Aranda zuzendariak bertze zuzendari entzunagoak lortu ez dutena lortu du; bere filmetan gai sakon desberdinak ongi lotzea, aktorez aldatu gabe, azken hiru filmetan gutxienez. Bergman suediarrek egiten zuen modura, aktoreen kalitatea



jeisten utzi beharrean hobetu egiten du. Hau hagitx zaila da eta espainiar filmetan oraindik zailagoa. "Amantes" daukagu ikusgai pantaila haundietan.

Hiru lagun arteko maitasunaren inguruko egoera itxia. Giroagero eta ilunagoa dute hiruen artean, 50. hamarkadako Madril kokatua,

militarismoaren eta elizaren indarrak oraindik itzala egiten zutenean jende gehienaren kontzientzia. Victoria Abril eta Maribel Verdu parez pare.

Bideoa

Nikita

Luc Besson
Frantzia - 1990

Nikita: hiltzeko larru gogorra dio bideo klubetan aurki dezakegun filma honen publizitateak. Noizean behin Frantziak bidaltzen dizkigu hau bezalako usategabeko filma aipagarriak.

Nikita neska drogazale



eta gaizkilea da, bere taldearekin lapurketak egiten

dituena droga ordaintzeko. Bere lagun bat hiltzen du poliziak holako batean eta bera betirako gartzeleratu. Poliziek azken aukera bezala drogaren ordainez atzerriko jendea eta marjinauak erahiltzea eskeintzen diote, kaleko egoera garbitzeko, eta hauetako batetaz maitemintzen da.



ZAGIT
Taberna. JARAUTA, 98.
IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

ETXEGARAI BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA



Lore eta landareak
Frain auzoa, Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

BIDEO BELAI

3 pelikula
3 egunetarako
300 pezetatan

Tfnoa: 63 77 80-LESAKA



Bidasoa aldeko birlandaketa 651 milioi kostako da. Horrela erabaki zuten Maiatzaren 14ean egindako bileran, Fco. San Martin Iruñeko Nekazaritza, Abeltzantza eta Mendietako kontseilariak eta eskualdeko Udal ordezkariak.



Trinitate Eguna Maiatzaren 26an ospatuko da Mendaur gaineko ermitan. Iturenen urtero egin ohi duten besta, berriz, Ekainaren 2ra atzeratu dute

Bederatzi gazte Iruñeako Auzitegian epaituak izanen dira

1989ko AEKelarrean gertatutako istiluengatik 20 hilabete beranduago

Hogei hilabete pasa ondoren eskualdeko bederatzi gazte epailearen aurretik pasatu beharko dute datorren asteazkenean, Maiatzak 29an. 1989ko Irailean, Beran orduan AEKelarre izena zuen ekitaldia suspenditu ondoren, Guardia Zibila-ekin izandako intiluen-gatik epaituak izanen dira gazte hauek.

Gau hartan, 82 gazte atxilotuak izan ziren modu xelebre xamarretan, hau da, kotxetan pasatzen zirenean, elkartetan zeudenean, edota edozein lekutan harrapatuak izan zirenak.

Gau osoa koartelan pasa ondoren eta deklaratu ondoren libre geratu ziren, baina haietako zenbaitek asteazkenean

pasatu beharko dute juezaren aintzinetik.

Hauetako batek adierazten digunez, "guardia zibilen arrokeria, haundikeria eta errabia gure barnean sentitu genuen, guk berriz, inpotentzia, ixiltasuna eta beldurra haien aintzinean. Egoera larri horietan ohartzen zara zer nolako gorrotoa gaituzten euskaldunoi eta gazteriari batez ere".

"Egoera hauetan indar haundia dute, baina ez gaurko gazteriari ikaratzeko hainekoa, momentu horietako ikara geroko indarra bihurtzen baita".

Azkenik, "epaituak izanen gara, batzuk kondenatuak bertzeak askatuak, baina ez diogu beldurrik haiek montatutako «justizia»-ri."



ATERPE jatefxea

Mendi ibilaldietarako Mountain bike bizikletak
alokatzen ditugu
Tfnoa.: 63 41 79 - ARANTZA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, yogurt...

SEKULAKO AUKERA PREZIO ETA KALITATEAN
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

TXOKO ERRETEGIA

Bazkari, afari
eta gosariak

ITUREN

Tfnoa.: 45 04 91

EUSKARAZ BIZI?

Siadecok "Euskararen egoeraz Bortzirietan" eginiko lana jadanik bukatuta dago. Geroztikan hainbat urrats eman dira baina bertan agertzen diren datuetan oinarrituz, etorkizun proiektzioa egitea komenigarria litzaiteke: gure herrian (Beran) azkeneko ikasturteetan D erdua (Euskaraz) ikasten duten haurren kopurua nagusitu egin da. Hau horrela

ikusita, epe laburrean, guztiz alfabetatuko herritar kopurua handituz joanen da eta Euskara, komunikaziorako beste hizkuntzak bezain baliagarria bihurtu daiteke. Baina horretarako arlo guztietan birtuteko egokiak ezarri behar dira, saiakera guztia hutsean gera ez dadin, zeren eta alperrikakoa iduritzen zait, herriko haur guztiak euskara menperatzea, gero ezinezkoa bazaie hainbat tokitan

erabiltzea. Beharrezko baldintza hoiek betetzen hastea denon lana da. Udal hauteskundeak laister direla eta, aurkeztendirentalde guztiek euskararen alde apostu egiten dutela ikusirik, gai honekiko sentsibilitate berezia edukitzea itxaron daiteke.

Dena den Udalak eredu izan beharko lukeen eremuan, bartzarretan euskararen presentzia areagotu behar litzateke, orain arte ez baitatzen bat arestian aipatu-

tako sentsibilitatearekin. Horrela, hizkuntzak duen zikloa osatu behar dugu: haurrek ikasketak euskaraz egin, helduak alfabetatu eta Udal-langile eta batzarkide direnek euskara gehiago erabili eta erraten dutenarekin kontsekuentegoak izan.

Badakit orain arte errandakoak edozeinentzat onargarriak direla, baina ez dut bukatu nahi kontzientziak astinduko dituen galdera batzuk luzatu gabe.

Bidezkoa ahal da Udal-langileak euskara ikasteko neurriak hartzea, hainbat zinegotzik euskara Udalean ia inoiz erabiltzen ez duten bitartean?

Zerrendak osatzeko orduan zer nolako garrantzia ematen diogu euskarari?

Noiz pasatu behar dugu euskararen alde bizitzetik euskaraz bizitzera?



Iñaki Gogorza

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630529 - BERA



S. Semper

Nekazal Tresneria

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN
BERAn, Agerra Industrialdean

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06

BERA

EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA



**EUSKALDUNA
JATETXEA**

Tfnoa.: 63 03 92
BERA

**SAROBÉ
okindegia**

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinu,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

“Bereziki babesturiko” eremuarekiko udal erabakia atzera bota du Iruñeko Gobernuak, HBri arrazoia emanaz

ROMAN HARRIBILAGA


Iruñeko Gobernuak Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak ezabatu egin du “Bereziki babestutako” eremuaren birkalifikapenaren alde Herrialde eta EAren botoekin Udalbatzak hartutako erabakia. Horrela, bere garaian HBren udal taldeak aho batez onartutako Hirigintz Arauak errespetatzearen aldeko erakutsi zuen jarrerari eman dio arrazoia Iruñeko Administrazioak aipatutako orubean, oihana denez gero ezin dela etxebizitzarik eraiki, alegia.

Erabakiaren Arrazoiak


“Bereziki babestutako” ere-

mua birkalifikapenaren aurkako erabakia hartzerakoan hiru arrazoietan oinarritu da Gobernuak: “Eremuen sailkapen eta kalifikapena babestu beharreko oihana edo intereseko esparrua”, “ez urbanizagarri den luraren kalifikazio aldaketa”, “interes partikularren mesederako Arauen aplikapen okerra” eta “bere inguruarekiko kokapenagatik”, alde batetik.

Baita ere, “egin beharreko etxebizitzak ez delako nekazal – abelantza-



Berako Agerra auzoko jolas-parkearen obrak burutzen ari dira



Irailaren 8an Saran, 14ean Etxalarren eta 15ean Larunerako Ibiladia Bera eta Saratik abiatuz izanen dira V. Akelarreren hiru ekitaldiak

rako izatearekin zerikusirik”, bigarrenik eta “Hirigintz antolaketaren ikuspuntutik ere ezin da onartu espedientea prezedente garrantzitsua litzateke-elako”, “oraingo Arau Subsidiarioek eremuargia adierazten dutelako” baita “oinarrizko zuhurtasun

arrazoiak direla eta hiritarren artean ezberdintasunak ebitatzeko” ere azkenik.

Udala eta “Martiko” Izoki Kofradiako kideak

Bidasoako Izokiaren Kofradiak Berako Udala

eta “Conservas Martiko S.A.” enpresa beratarrak, bere erakundeko kide berriak izendatuko ditu.

Horretarako eta osoko bilkuran ahobatez hartutako erabakiaren ondorioz, adierazitako Kofradiak Beran ospatuko du bere XII. Urteko Kapitulu Orokorra datorren ekainaren 9an, Bidasoaren bi aldeetako eta Cantabriatik La Gironde-raino hedatzen diren lurraldeetako kofradien 200 ordezkari ingururen etorrerarekin garatuz egintza. Beronek Udalaren baimena eskuratu du, honen laguntza ere eskeini diolarik Kofradiari.

Zenbait Kultur ekintzen datak hautatuak

Oraindik burutzear aurkitzen diren kultur egintzen artean zenbaitentzat datak hautatuak izan dira :

Irailaren 8an Saran, 14ean Etxalarren eta 15ean Larunerako ibiladia Beratik eta Saratik abiatuz, V. Akelarreren hiru ekitaldiak; Urriaren 27an V. Luraren Eguna eta Gure Txokoa elkarteak antolatzen duen Margo Lehiaketarentzat Azaroaren 3a.

LESAKA

Herriko elkarteentzako subentzioak 4 milioitik gorakoak

Kultur eta kirol ekintza guztiak dirulaguntza jasoko dute Udaletik

AITOR AROZENA


4.211.319 pezetaja soko dituzte guztira herriko elkarte desberdinak aur-tengo kultur eta kirol ekintzak ordaintzen la-guntzeko, agintaldi hone-tako azken Udalbatzan ahobatez onartutakoaren arabera.

Kirolean, Beti Gazte izanen da diru kopururik haundiena jasoko duena, 1.247.182 pezetekin, Bortzirak K.E. 415.344 pzta., Arkupek 287.634 pzta., Iraingo Guraso Elkar-teak judo ikastaroarengatik eta Basurdek, 56.989na pzta., San Fermin elkar-teak 53.765 pzta, Mantenimen-du gimnasiak, Gorputz es-presiorako tailerrak eta Arrano Mendi taldeak 45.436 pzta. bakoitzak eta Tantarumairu ikastolak eta Irain eskolak, 28.495 pzta.(2.311.200 guztira).

Kultur ekintzei dago-kionez, 1.900.119 pzta. daude guztira; Musika bandak jasoko du dirutza-rik haundiena (462.240), Iraingo Guraso Elkar-teak 388.800 pzta., Txistulari



Ongi merezitako omenaldia eskeini zion Musika Bandak Jose Gabriel Maritxalar "Bittiri" eta Miguel Mikelajauregi "Petaka"-ri Maiatzaren 19an. Gazte gaztetatik "Lesakako Udal Musika Banda"-ren partaideak izan ziren, bertan egonik 1970 urtea arte, Banda desegin zen urtea alegia. 1982 urtean, Banda berriz ere eratu zenean, itzuli egin ziren, euren musika-tresnak Bandaren oinarri nagusi bihurtuz.



bandak 254.230 pzta., Arranoa elkar-teak 205.000 pzta., 173.340 pzta. Abes-batzak, 161.784 pzta. San Fermin Jubilatu elkar-teak, 119.000 pzta. Tantarumai-ru Kultur elkar-teak, 98.225 pzta. Akordeoilari taldeak eta 37.500 pzta. Beti Gazte elkar-teak.

Dirua, ekintzak bete-tzen diren neurrian jasoko dute elkar-teek, horretarako, Administrazioarekiko har-remanetan eta propagan-dan, karteletan, etab., eus-kara guttienez elebitasun mailan erabili beharko da (edo euskara hutsean) eta

subentzionatutako ekin-tzen propagandan, Udala-ren izena laguntzaile beza-la agertu beharko dute.

Txoznarik ez, momentuz...

San Ferminetan HBren taberna Eskol-ttikin jar-tzeari eta Gestoren txozna paratzeari ezezkoa eman zien EAK eta PNVk, osasun baldintzak ez omen dituz-telako betetzen. Horretaz gain, alkateak "eraikuntza publiko bat ez da alderdi politiko bati bere onerako utzi behar" adierazi zuen eta Ostatuen elkar-teak,

idatzi baten bitartez, bes-tetan taberna gehiago ez irekitzea eskatu omen du.

Hala ere, proposamena idatziz eta ez mozio bezala aurkeztea eskatu zuen al-kateak, gai hauek nahiko garrantzitsuak direlako.

Jubilatuak oinez San Antonera

Maiatzak 24erako, San Fermin Jubilatu elkar-teak San Antonera martxa anto-latu du. Goizeko 9etan pla-zatik abiatu eta Nabaz, Banarta eta Zalaburuko bi-detik barrena, Gardelko-bautako gainera ailegatuko dira, bertan hamaiketako egiteko. Hemendik Telle-rin barrena, San Antonera iritsiko dira ordubik alde-ra. Bazkaria Ola Berrin izanen dute eta ondoren dantzaldia Beti Jai taldea-rekin, azkenik autobusean bueltatzeko.

□ **Bertsolari** gazte-txoak arituko dira maia-tzaren 31an frontoian.

□ **Matxinbeltzenea** etxea euskara ikasteko eta promozionatzeko eraikun-tza bezala moldatzea onartu eta bultzatuko du Udalak.

XATURETXEA
FONDA

Tfnoa.: 63 70 27
LESAKA



Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127 **LESAKA**

90 urtekoei omenaldia eskeini zitzaion

Maiatzaren 5ean Doneztebeko ekitaldian sei etxalartarrek hartu zuten parte

PELLO APEZETXEA

«Arkupeak» antolatua, maiatzaren lehen igandean omenaldi besta ospatu dute jubilatuek Donezteben, 90 urte bete dituztenen ohoretan. Aintzineko egunetan, 1, 2 eta 3an xeheki, zenbait ekitaldi burutu direnez, Zugarramurdi, Elgorriaga eta Beran egunpasa egiteko aukera izan dute jubilatuek. Etxalarren bizi direnen artean 90 urte betetakoak, edo aurten egingen dituztenak, honako hauek ditugu: Elizaldeko Bordako Antonio Espelosin «Baxtan», Bordaberriko Frantxisku Elizalde «Zamuio», Martiñeneko Felisa Sanzberro, orain Irunen dagoena, Iguzkiagerreko Martina Garmendia, Uharteko Iñaxi Portu eta



Antonio Espelosin



Frantxisku Elizalde



Felisa Sanzberro



Martina Garmendia



Iñaxi Portu



Luziano Sanzberro

Maritxeneko Luziano Sanzberro.

Anderenõa lanpostua ezin ziurtatuz

Ikastola desagertzeko agindua eman zuenean Nafarroako Gobernuak,

anderenõak hiru lehiaketaldi edo konkurtso aukera edukiko zituela erran zuen, eskolako postua behinbetiko eskura ahal zezan, herrian bertan eta lanpostu bera. Orain, ordea, ez dauke gauzak hain garbi. Azterketa burutzeko bidea

emanen diote, bai, baina lehengo lanpostua segurtatzea bertze kanta da. Eta kanta hori kantatzea Gobernukoei ahortzi egin ote zaien iduri du.

Eskola arteko topaketak

Aintzineko urtean Arantza, Etxalar eta Igantzi herrietako eskoletarako koordinatzailea izanez, elkarren arteko zenbait ekitaldi burutu zuten. Koordinatzailea kendu badute ere, elkarrekiko hartu-emanak ez dira erabat baztertu, «Topaketak» izenekoak erakusten duen bezala. Apirilaren 11n Arantzian bildu ziren hiru herrietakoak egun osoz, kanta ikaskintza saioa burutuz. Herriaren inguruak eza-gutuz oinezko ibilaldia ere ez zen falta izan.

IGANTZI

Fraingo pinadiaren erdia subastara ateriko da

Bertze erdia bota behar izan zen sutearen ondorioz

OSKAR TXOPERENA

Suaren eraginez Fraingo pinadiaren erdia bota baldin bazen orain dela urte bat edo, orain bertze erdia subastara ateratzea erabaki du Udalak.

Hainazkar bota beharra arbolen egoerak eragin

omendu, gehienak igartzen ari bait ziren ditzosozko arrarengatik. Premiazko prozesua eramane du gainera subastak lehen bait lehen bota ahal izateko.

Sarrolako pareta moldatzen

INEMekin batera bi lagun kontratatu ditu Udalak

herri inguruan zenbait lan egiteko.

Oraingoan Andres Mitxelena eta Iñaki Etxaberria ari dira lanean.

Lehendabiziko hasi duten lana Sarrolako pareta moldatzea izan da. Beheko aldeko arbolak bota behar izan dituzte zainak pareta

botatzeko arriskuan bait zeuden. Datorren neguan bertze batzuk paratuko dira seguraski, baina ttikiagoak.



(bertze aldean segitzen du)

Markeliñe taldearekin gustora

Izugarri gustatu omen zitzaion jendeari Bizkaiako Markeliñe antzerki taldea. Solasik gabeko saioa eskeini zuten gimnasioan eta jende poliki egondu omen zen ikusten.

Iniziatiba polita herri ttikitara kultura nolabait hurbiltzeko. Zaila izanen litzateke bertze modura ekartzea.



ARANTZA

Kirol eskola lan polita egiten ari da

Iaz hasi zen eta aurtengoan jadanik finkaturik dago

JON LARRETXEKA

Kirol koordinatzaileak prestaturik iaz sortu zen herrian kirol eskola, bere eginbeharra herrian kirola gazte eta haur artean bul-tzatzea delarik. Aurtengoan ematen diren kirolak hauek dira: pilota eta baloiarekin jokoak haur ttikientzako Blanka eta Migel Angel Taberna eta Mirari Leizak ematen dituzte. Pilota eskuz 5. maila arte Jon Agestak. Pilota eskuz 5. mailatik aurrera Imanol Iturriak. Joko-garbi Asier Lujanbiok. Eta saskibaloia berriz, David Iturria eta Aitor Agestaren artean. Monitore hauek koordinatzen Joxe

Ramon aritzen da eta diru aldetikan Udalak babes ematen dio. Orain arte aktibitateak ongi doazi, bai gazteen parte hartze aldetik, bai monitoreen lanaren aldetik. Izan duten arazorik aipagarriena eguraldiarena, izan ere, zenbait joku egitea galerazi du.

Datorren igandean hauteskundeak

Behar bada momentuko berririk aipagarriena haxe da, herrian ez bait da bertze konturik aditzen. Oraingoan gainera, aukera zabaladugu, 3 talde alajaina!! Dena den, aipatu bakar bakarrik M^a Teresa Graner, Satur Larralde eta Jose Luis



Iparagirrerri tokatu zaiela hauteskunde mahaian egotea.

Eskolarako laguntza

Kasik 2 milioiko laguntza eman du Nafarroako Gobernuak eskolan zenbait

hobekuntza egiteko eta gehienak patioan egingen dira.

Laguntza hau joan den urtean eskatu zen eta orain ailegatu da. Hobekuntzak datorren ikasturterako eginak izan beharko dute.

PABLO-ENEA
Jatetxea

Tfnoa: 63 40 77

ARANTZA

MANUEL LANTZ
KONTABILITATEA ETA AHOLKULARITZA FISKALA

Errenta deklarazioak, BEZ edo
IVA deklarazioak, Kontabilitateak, e.a.

Tfnoa.: 63 11 08 - BERA

«U S O A»
NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

Jubilatuek besta izan zuten Donezteben Maiatzaren 5ean

SARA ETA NATALIA

Juan Migel Telletxea, Mikaela Goñi eta Prudentxi Irazokik, 90 urte baino gehiago izatea zen arrazoia.

Eta ez dakizue ze sasoi daukaten! Baltsean eta dena aritu ziren, zapataren takoia hautsi arte. Meza Bordatxon eta bazkaria, eskolako frontoian berobero. Azkenik dantzaldia Bordatxon, Argiñene disk-

jockey zelarik.

• **Maiatzak 19an**, lehenengo jaunartzea ospatu zuten herriko bi mutil santuenak.: Migel Angel Agerralde eta Joseba Otxandorenak. Zorionak!!!

• **Gazteluko Pedroren** ardi batek hiru bildots erditu zuen. Baina halako batetan, ardiak titi bat daukala konturatu dira eta hura zimurra. Hori ikusi beharra! Oraindik ez zen



horrelakorik gertatu Gaztelun. Dakizueenez, Dona-

marian eta Gaztelun gauza arraroak gertatzen dira.

URROTZ

JOXEMARI URROTZ

Agur afaria

Iñaki hilabete honetan soldaduzkara doaiela eta, maiatzaren 11an 20ren bat lagun, Iruritako bestak zirela aprobetxatuz, Lekarotzko Hiru-Iturri jatetxean bildu ginen afaltzera. Gero, Iruritako bestetara gaua pasatu genuen, baina ez zen errexa izan edatea, jendea

pilaka bait zegoen.

Bertzenaz, ez da aipatzeko haundirik. Presak oraingoan bete beteak dau dela (noski) eta karretera moldatzen ari direla, nola ez, hauteskundeak dira eta!!!

Azkenik, orain nonahi bestak direnez, animatu denori euskaraz hitzegitera, ez baita sobera entzuten!!!



**ARRANO
ELKARTEA**

*Laister
Denontzat
Zabalika*

Albistur - LESAKA



Udaberriko moda...
hementxe dugu!!

San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE



ARROPA ETA OPARI DENDA

Mercaderes 9
DONEZTEBE

Nerea

Oinetakoak

San Migel 2, DONEZTEBE

ITUREN

Iturenen, Trinitate eguna ekainaren 2an ospatuko da Meza, maiatzaren 26an izanen da baselizan

IBAN ISASI

Urtero bezala, aurreko egunean, ekainaren lehenegian hain zuzen, nahi du tenak urtegira joanen dira akanpada egitera. Hurrengo egunean, igandean (ekainak 2) erromeria egiten da Mendaurreraino.

Aipatu, meza 26ean egiten dela. Goian ohizko desioak eskatu ondoren, gosalduta. Eguerdi aldera jendea urtegira jeitsiko da, eta bertan seguraski Iturenengo gazteek antolatutako

bazkaria izanen da. Arratsaldean, dantzaldia egiten da Izotz taldearekin. Atsedendian, bertsolariak egiten dira.

Ganbidatuak zaudete Mendaurrera igotzera eta arratsaldean Iturenera besta egitera etortzera.

589.571 pzta artxiburako

Dirua, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza, Kultura eta Kirol sailak eman du bertako artxiboaren antolaketa eta inbentarioa



egiteko. Hau, lehen Erretartxiboan eta Nafarroako artxibo orokorrean egiten zen, baina 1985. urtetik aurrera sistematikoki heldutuz joan da biltze eta antolaketa udal-artxiboetara eta baita elizakoetara.

Maika Ariztegi

Kirolari bikaina dugu Lasaga auzoko Maika. Maitzaren 12an, igandean, Iruñeko Maratoi erdiaren (21 km) irabazle suertatu zen. Animo eta segi bizkor.

ZUBIETA

ION eta JAIONE

Vox Populi

Eguzkia gutaz atzendu da. Joan den hilabete osoa eta hilabete honen erdia euriak ez du momentu bateko atsedena ere hartu. Bazterrak idorrak bazeuden ederki tzipatu dira oraingoan, alajainkoa! Aspertzeko adina bota du baina aspertasun hau hausteko bideak aurkitu dira; bat maiatzaren 12an izan zen, Catalunyaatik "Vox populi" taldea etorri zitzaigun, Nafarroako Gobernuaren "Udaberriko Jira-birak" ekarrita. Hiru lagunek Errandonetik hasita mundu



guztirik bueltatxo bat ematera eraman gintuzten beren musikarekin. Flauta, fagot, klarinete eta kordioa batez eskeini ziguten mundu puska bateko folk musika. Hagitz ongi jo zu-

ten baina pena ttiki bat: jende gutti eta gehienak kanpokoak.

Oporretan ikasten

Aurtengo udan, Xapadon Amaia joan beharra

zaigu oporretan Frantzira hango hizkuntza ikastera. Nafarroako Gobernuari egin zion eskaera eta hark eskatzen zituen kondizioak beteta (beka hartua izatea eta frantzes asigaturan notable atera izatea) Amaia berexi zuten uda hontan hilabete batez ikasketak betetzeko. Bon voyage!

Omenaldia

Arkupeak Seroko Pedro eta Isabeleko Terexari omenaldi bat eskeini zieten Doneztebeko frontoian bazkari baten bitartez. Hura bukatu zutenean Bordatxon izan zuten dantzaldia "eskeletoa" mugitzeko.

1991rako aurrekontuak ia 141 milioitakoak izanen dira

PATXI PETRIRENA

Apirilaren 26ko bilkuran onartu ziren eta guztira, 140.508.678 pezetatako diru kopurua mugituko da. Hauek dira, atalka, izanen diren **gastuak**: **1.-** Langilegoa, aseguroak, laguntzaileen lansariak...: 7.460.130. **2.-** Zerbitzuak: (argia, karrikak, eskola, pistak, bestetako musika...): 8.105.000. **3.-** Interesak eta amortizazioak: 4.000.000. **4.-** Mankomunitateetako gastuak eta laguntzak (euskara, osasun



arloan, musika, kirola, dantzariak...): 3.644.975. **5.-** Inbertsioak: **-Pistak**: 90.000.000; **-Meakakoura**:

13.500.000; **-Eskolako parreta**: 1.800.000; **-Arau subsidiarioak** 2.000.000 **-Herriko Etxea konpon-**

tzea: 9.752.573.

Zenbaki ttikixegotara pasatuz, erran behar da, duela hilabete pare bat **ttipi-ttapak** egindako laguntza eskaria, aztertu eta geroago erabakitzeke utzi zuela Udalak.

Saihesbideko obren adjudikazioa

Nafarroako Gobernuak adjudikatu dizkie dagoneko saihesbideko obrak hiru enpresari, 1.163 milioiko aurrekontuaz. Hemezortzi hilabeteko epea dute lanak burutzeko.

Aditu Baten Ziurtasuna

LAGUN AROn honako hauetan gara adituak

- Industri Aseguru Konbinatuan
- Bizitza Aseguruetan
- Eraikuntzako Arrisku Orotariko Aseguruan
- Etxe Aseguru Integralean
- Komertzio Aseguru Integralean

LAGUN ARO ASEGURUAK. Konpainia on baten baliabidea



Ostatua, San Juan z/g
Tfnoa.: 61 51 19
31747 SÁLDIAS

Juan Jose Urrutia Juanenea
(Ajentea)

INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non:** MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



Zure iragarkiak inguru honetako 4.600 etxetara zabaldu nahi badituzu, deitu 631188 telefonora

DONEZTEBE

Kultur asteak 27tik 31era euskaltegian eta eskolan

TXEMA ALDABE

Malerrekako Euskaltegia-IKAn antolatutako ekintzen artean hauek ditugu: *astelehenean*, Malerrekako zenbait eskulagile beren lanak erakusten egonen dira arratsalde; *asteartean*, Josu Txuekak sorginkeriar buruzko diapositibak eta hitzaldia eskekiniko du arratsaldeko betan; *asteazkenean*, Ester



Aurten ere haurrek izanen dute ongi pasatzeko aukerarik

Fernandez eta Asisko Urmenetak pintura eta komi-

kien erakusketa eta hitzaldia; *ortzegunean*, hau

idazterakoan zehaztu gabe badago ere, hitzaldia izanen da.

Eskolan, berriz, Euskararen Aste honetan, euskararekin loturiko zenbait ekintza antolatu dituzte "Euskal Herrian Euskaraz" lemapean. Tikiendako antzerkia, erdi eta goi ziklokoentzat pelikulak eta... denendako, bideoak, ipuin eta marrazki lehiaketak, aldizkaria, irrati saioa eta bertso eta kanta jaialdiak izanen dira, bertzeak bertze.

SARA

"Larrun behiti pirripitan" Maiatzaren 26ra gibelera tuta

OLHAIN ELKARTEA

"Larrun behiti pirripitan", Maiatzaren 5ean egin behar zena, hilabete hunen 26rat gibelera tuta izan da. Xehetasun gehiagorako ikus *TTIPI-TTAPA* 60. zenbakia edo deitu Syndicat d'initiative Sararat 59542014 tfnora.

Gau pasak

Aurten ere Olhain eta Gaztetxeak antolatu zuten apirilaren 30ean gau pasa.



Aro txarreneatik ez zen ospatzerik izan maiatzaren 5ean

Zorigaitzez euriarengaitik ez da iragan. Antolatzaiei

leek talde berak gelditu dituzte heldu den urteko,

agian denbora ederrarekin.

• **Bigarren** aldikotz Olhain elkarteak Herri Urratsen laguntzarekin antolatzen zuen Herri Urrats Gaua. Jende aintz, giro ona eta laguntza asko lanean aritzeko, antolatzaileeri indar emateko behar zen guzia.

• **Maiatzaren 25ean**, gazteen etxean eginen da bilkura bat, Gau pasa horren kondu eta arazoan antolatzaiei.

FOTO GOIKO

Altzate36, Tfnoa: 63 05 15 - BERA

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel Guerendiain

SARA - LAPURDI

ALMANDOZ

Maiatzak 29, 30, 31 eta ekainak 1,2



Asteazkena 29:

1etan altxaferua botako da besteei hasiera emanez; **9etan** kalejira herriko karriketan barna, **10etan** afari herrikoia Zokozar elkartean; **12,30etan** mozerro dantzaldia MODESTOrekin.

Ortzeguna 30:

7,30etan Diana "Onena" korallarekin, **11,30etan** Meza Nagusia; **12,30etan** otamena; **5etan** emakume pilota partidua; **10etan** Herriko Plazan afaria herriar guzientzat; arratsalde eta gauaz dantzaldia MODESTOrekin.

Ortzirala 31:

11etan Mus Txapelketa San Blas Bentan; **2etan** Zikiro Jatea leku berean; **5etan** txokolatada, haur-jostetak eta Jinkana; **6etan** pilota partidua; arratsalde eta gauaz dantzaldia SCANA taldearekin.

Larunbata 1:

6etan Plater Tiroketa San Blasen; arratsalde eta gauaz dantzaldia ALMEN taldearekin.

Igandea 2:

10,30etan Lesakako Dantzari Tikiak; **12,30etan** pilota partidua Lesaka-Baztan; **6etan** arpana, Nafarroako Txapelketarako sailkagarria; arratsalde eta gauaz dantzaldia MACUNBA taldearekin, **3,30** "...norbera bere etxera"

BERTIZARANA
**BOTIKA
BERRIA**

Tfnoa: 59 22 50
**NARBARTE
BERETABERRI**



Galeria Komertzialak, Colon Pasealekua 31, IRUN

ILEA ONGI ZAINTEKO
HOBEBE EZAUTU
BEHAR DA

FLOREN

ILEAPAINDEGIA

Kosmetologi
kabinetearen helbide
berria hauxe da:

Tfnoa: (943) 619278



INFORMAZIOA:

Ezkalo Jauna
Tfnoa: 45 15 18
Doneztebe

- ELIZONDO:** • 88m² ko pisua. 4.900.000 pza. negoziagarriak.
- NARBARTE:** • 89m²ko pisu estreinatu gabea, 21m² bajera eta 100 m²ko baratzea 7.700.000 pza. negoziagarriak.
- BERA:** • Erdi-erdian 57m²ko pisua, 4.550.000 Pza. negoziagarriak.
- ALMANDOZ:** • 88m² ko pisua. eta 18m²ko terraza 5.000.000 pza. negoziagarriak.
- DONEZTEBE:** • 90m²ko pisu ekipatua. Sukalde, 3 gela, egongela tximiniarekin, bainua eta ganbara 7.500.000 pza..
- IRURITA:** • 90m²ko luxuzko pisu moblezatua eta kalefakzioarekin. Hostal Baztan ondoan. 18m²ko ganbara eta 25m²ko bajera. Prezioa negoziagarri.
- ORONOTZ:** • Borda bidearekin eta 10.000m²ko eremu zelaiarekin erreka ondoan. Prezioa negoziagarria.
- ZUBIETA:** • Etxea baratzearekin. Okasioa.
- ITUREN:** • Eremurik gabeko borda. 600.000 pza negoziagarriak.
- Etxe, baserri edo bordarik nahi baduzu, deitu.

ALMACENES ETXANIZ, S.A.



Lesakako Iturria anaiak

Irunen, zure bainurako
behar dituzun osagarri
guziak: griferiak,
manparak, mobleak,
gres eta zeramikak

Juan Arana, 3
Tfnoa:
(943)
61 17 67
IRUN

Publizitaterik onena
preziorik ttikienean

Zure iragarkiak Bortzirriak, Malerreka,
Bertizarana, Baztan, Leitza, Goizueta,
Zugarramurdi, Sara
eta bertze hainbertze herrietako
4.500 etxetara zabaldu nahi badituzu,
deitu 63 11 88 Telefonora



CRISTALERIA VELATE

TRUGLASS

- ✓ Eraikuntzak kristalezatzea
- ✓ Instalazio komertzialak
- ✓ Climalit beira edo kristal isolatzailea (aislantea)
- ✓ Seguritate lunak
- ✓ Kristalera artistikoak
- ✓ Mural ispiluak
- ✓ Grabatuak
- ✓ Etxe barneko dekorazioa
- ✓ Oparitzeko artikulua

ELIZONDON, Pedro Axular karrika, 1 – Tfnoa: 58 08 25
DONEZTEBEN, Merkaderes karrika, 5 – Tfnoa: 45 09 91

Demokrazia Nafarroan gutxiengorik gabe? Ezetz!



Demokraziek ez diete gutxiengoei jokatzeko tokirik eskeintzen. Haientzat gutxiengoak soberan bide dadue. Haiek herriaren, herri osoaren ordezkari bakarra direla uste dute, eta hori pastelaren zatirik ederrena lortu dutelako, besterik ez.

Oraingoan ere betiko leloa errepikatzen da. PSOEtarren eskumakoen aurkako boto guztiak bildu nahi dituzte, HBkoak boto erradikal guztiak bereganatu nahian dabilta, ... Gutxiengoei mesprezua eskaintzen zaie, irabazlearen alde jokatzeari irabazle ateratzea delako argudioa erakutsiz.

BATZARREk azken udal hauteskundeetan 9.000 boto lortu zituen. Orain boto horietan oinarriturik Parlamenturaino iritsi nahi dugu. Demokraziatik nork eta zeren izenean ixilerazi ahal izango digu abotsa?

Beharrezkoa den gutxiengoa.

SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



• **MEKANIKA:** ibilgailu edo kotxeen mekanika, traktoreak, soldadura...

• **OIHANZANTZA** edo **FORESTALA**

• **NEKAZARITZA** eta **MEKANIKA**

• **OSTALARITZA, PUERIKULTURA**

Bi urtez. Eskolak, jantokia eta logelak ere badauzka.

Praktikak:

Aste bat Eskolan eta bertzea, lantegietan praktikak egiten.

Nor matrikula daiteke?

OHO edo EGB egin duena, nahiz eta "Graduado Escolar" ez izan.

EUSKARAZ eta ERDARAZ

BIDE BERRIAK URRATZEN HASTERA GUAZ!!

Barnetegia

Euskaltegia

Euskal Txokoa

Albergea

Areto egokiak txarlak,
hitzaldiak etabar emateko...


Izan zaitez laguntzaile!!

Matxinbeltzenea

zabaltzen

Proiektu hau Bortzirietan, bertako euskaltegirako lokala egokitu, eskualdean euskarari bultzada eman asmoz, eta Euskal Herriko edozein zentro, talde edo partikularrari euskara ikasteko, euskaraz bizitzeko, eta Nafarroako eta Iparraldeko ingurua ezagutzeko posibilitatea eskeini asmoz gauzatu nahi dugu.

Lagun ezazu zuk ere **laguntzaile** eginez, horretarako 3 urtez hilabeteen 1.000 pztako diru laguntza emanez.



BIDALI: BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIra Beheko
Plaza – 31770 LESAKA

Izen/Deiturak.....
Helbidea..... Tfnoa.....
Banku edo Aurrezki Kutxa.....
Bulegoa..... Kontu
zenbakia.....

Onartzen dut, aipaturiko kontutik behean agertzen den diru kopurua hileror ordaindua izan dadin Nafarroako Aurrezki Kutxako 0007 61910092375.9 kontura.

☐ 1.000 pzt. / gehiago..... Sinadura

Eguraldia protagonista

Euria ari baitu azken aldi hontan, eta nola gainera!

JOSEBA I.

Patata erein zutenak, lana ederra dute berriz ere, lur azpian dagoena ustelduta bait dago.

Iruritako bestetan berdin. Ohituraz goardasolen besta direnak, aurtengoan, txaluparenak bihurtu dira ia-ia euri zaparradak zirela eta, karrikak erreka itxura ere hartu bait zuten.

Esne kuotak direla eta, berri garrantzitsua nekazarientzat. Europako Ekonomi Elkartek banaturik, ehun mila litro baino gutiago saltzen duten nekazariak, esne kuota altxatzeko eskubiderik badute. Informazio gehiago hartzeko eta batez ere paperak betetzeko, jo dezakezue EHNE sindikatura. Epea hagitz laburra da. Beraz, erne, ibili.

Baztandarren Biltzarra

Zabalik dago Baztandarren Biltzarra besta iragartzeko kartela egin eta aurkezteko epea. Aurtengoan uztailaren 21ean ospatuko da Baztandarren



Biltzarraren ekitaldirik nagusia.

Hauteskundeak

Bakoitza bere santuari errezatzen ari zaio abaila ederrean. Mugimendua ederkiki sumatzen ari da egunotan bailara osoan.

Iruñean Baztani buruzko hamabostaldia

Iruñean Baztani eskeinitako hamabostaldi kulturala burutu da egunotan. Antolakuntza Iruñeako udalaren esku egon da eta bertan Baztango hainbat artisau, margolari, hizlari (Salaburu, Esarte, Arizkun,

Pedro Villanueva...), Korala eta dantzariak parte hartu dute. Gainera, Baztango sukaldaritza ere bertan izan dute dena ongi hornitzeko.

Ikastolaren aurrekontua UBren botuekin onartua

Baztango Udal Ikastolaren 1990ko aurrekontua, UBko 8 aldeko botoekin eta BA eta HBren aurkako 5 botuekin onartu izan zen.

Ikastolako ordezkariak aurkeztutako presupuestoa UBk moldatutakoan, horrelaxe gelditu zen:

Diru-sarrerak osotara:

41.333.614; hauetatik 36.390.196 Nafarroako Gobernuaren subentzioa da, 3.276.100 89ko superabita, milioi terdi gurasoen laguntza eta 167.318 pzta. interesena.

Gastuari dagokionez, osotara 35.115.973 pzta izanen da, UBk onartutakoaren arabera. 26 milioi nominetarako izanen da, 7.679.989 aseguru sozialean, milioi bat eskolarako materialean eta 300.000 pzta. pasatxo gestoria eta telefonoan.

BAk eta HBk, "ikastolaren gestiorako ezinbestekoak diren partidak kendu ditu alkatetzak" adierazi zuten, "aurrekontua berriro ere manipulatu izan dela" salatuz.

Zaharren Erresidentziaren aurrekontua onartua

«Francisco Joaquin de Iriarte» Zaharren erresidentziak, 107.225.000 pezetako aurrekontua izanen du aurtengoan, bai dirusarreraren aldetik eta bai gastuen aldetik ere.

ERRATZU OKINDEGIA

zure eguneroko ogia

453168 - ERRATZU


Nafarrorako egile ofiziala:

ONENA Tailerrak

Zalduvia Poligonoa, IRURITA (BAZTAN)

deceuninck

Behar duzuna, PVCn



Etxetik mugitu gabe ardoa erosi nahi baduzu

• Botilatu eta botilatu gabea
• Markako ardoa...

deitu 45 32 66 Tfñora.

AZPILKUETA

ZUGARRAMURDI

Herriko karriken antolatze lanak aintzineratzen

KORO ETA MARGARI

Herriko karriken antolatze lanak aintzina segitzen dute. Orain arte egin dituztenak, txarrenak izan dire: karrika guztiak itzili-purdika ereki, argi eta telefono hariak lur azpitik sartzeko. Orain bederen ari gara zerbait ikusten: beitiko karrikako zola guztia ormigonatua baitute eta harrizko pareta eder batzuk ere eginak.

Jendea aspertuxea dago egunetik egunera beren oinetako, etxe, kotxe eta bazter guztiak lohiez eta



errautsez zikinduak ikusiz, baina badakigu lan hauek holakoak direla eta pazientzia pixka batekin hartu beharko ditugula.

Ahantzi gabe eskerrak eman nahi diegu langileei saiatzen direla karrikak ahal bezain apainduak uzten aste bururako.

Omenaldia

Orain dela bi hilabete Altzan egin zitzaion omenaldia Fernando Arburuari eta orain bere herrian hauxe antolatu dugu: Ekainaren 2an (igandea) eta lezeetan zikiro-jatea izanenda, gero txalapartariak eta bertsolariak (Amorena eta Elizagoien); akelarre baten antzerkia, eta bukatzeko dantzaldia. Etorri nahi duzuenentzat txartelak erosten ahal dire herrian, Bera, Lesaka, Elizondo eta Saran, betiko tokitan Maiatzaren 24a arte.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Neska eta mutilendako udako arropa arinak
Pultsera eta belarritakoak (Zilarrezko, larruzko...)
Oparitzeko bitxikeriak (abanikoak, musika-tresnak...)

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR Tfnoa: 45 30 00

Eskeizari jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013

ELIZONDO



«ZALDUBI» SUKALDE MOBLEAK

Altzari fabrikazioa eta
muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 45 20 77
IRURITA - BAZTAN

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE



Ezkontzetako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
**ORDU BATEZ
ERREBELATUAK**
ditugu

FZ

FOTO ZALDUA

Argazkiak, Bideoa, Markoak

ELIZONDO TF: 58 04 91

DONEZTEBE TF: 45 03 64

Pasatu ziren Urdazubiko bestak

Errebestak maiatzaren 25 eta 26an ospatu dira

ALIZIA OLAIZOLA

Maiatzaren 12an herriko bestak akitu ziren. Asteazken atsaldan hasi ziren. Gazteek Indiano-Baitan afaldu zuten eta gero, piztura haundia izan zen Modestorekin.

Biharamunean, goizeko 11etan, Herriko etxetik Fernando eta Andonik suziriak bota zituzten eta Meza Nagusirat abiatu ziren denak. Ondotik aperitiboa plazan eta piztura Ainhoako Klikarekin. Arratsaldean jokatu zen pilota partida eskuz. Gero dantzaldia Atsulaiko Taldearekin. Oso animazio haundia eman zuten. Merendu ttiki bat ere izan zen herriko neskak prestaturik. Dantzaldia Anker taldearekin. Ortziralean goizeko 11etan Gaztelu Haizatu bat izan zen haurrentzako. 12etan Dianak Dantxari-

neako auzoan Modestorekin. Arratsaldeko 2 oronetan Gaztelu Haizatua haurrak jostatzeko, ondotik Txokolatada. Gauez dantzaldia Anker taldearekin.

Larunbat goizean Pala txapelketaren finala jokatu zen. Bigarren mailako bikoteak, Angel Arozarena eta Genaro Etxenike Urdazubikoak; Pello eta Beñat Errekalderekin aurka, biak Amaiurkoak. Angel eta Genaro txapeldun izan ziren 50-37. Lehendabiziko mailako bikoteak Berrro eta Pernaute Mugairekoak Jaen (Elizondokoa) eta Lakosta (Zigakoa)ren aurka. 50-48 Mugairekoak txapeldun gelditu zirelarik. Arratsean zikiro-jatea izan zen; aurtien piperrada eta zopa egileak ez ziren Lauri eta Pakita, Cristina eta M^a Angeles baizik. Lourdes eta Alinen laguntzarekin, zeinta, Lauri gaixorik ze-



Bistan dago nola pasatu zuten Urdazubiko neskatxak, maiatzaren 11an egindako Zikiro-Jatean!

goen. Zikiroaren ondotik dantzaldia Haritza taldearekin.

Igande arratsaldean euskal probak Sunbilla, Labaien eta Amaiurko taldeekin, Josune eta Ainhoa trikitilariek alaiturik Hamarretan errifaren zozketa egin zen: Bidai zoragarria bi lagunendako Benidorrera. Txartela Itziar Galaregik saldua omen

du. Herriko gazteek Mike-lenbordan afaldu zuten eta dantzaldia Drindotsekin.

Aipatu halere bestak ez direla hemen akitzen, 25ean errebesta ospatuko da Zikiro-jate eta dantzaldiarekin. Biharamunean, arratsaldez motokrossa Leorlas auzoan izanen da eta dantzaldia Modestorekin.

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanzazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

ZUNZARREN

Gestoria

- Allianz Ras Aseguruak
- Bidai Agentzia

Tfnoa: 45 22 93

Amaiur Gaztelua 2
31700 ELIZONDO

LEITZAKO KULTUR ASTE A

Maiatzak 25, larunbata

- 4-etan **XAKE txapelketa** AURRERAn
6-etan Donostiako Txapeltxuri banda txikia eta herriko ASKETA abesbatza-ren **musika emanaldia** elizan.

Gaua alaituz gaiteroak arituko dira herrian barna.

Maiatzak 26, igandea

- 11,30-etan Leitzako ARALAR orkestaren **emanaldia** elizan.
5,30-etan Herriko gazteek eskeinitako **jaialdia zineman** (antzerkiak, kantak)

Maiatzak 27, astelehena

- 7-etan Mendia eta naturari buruzko **diapositiben emanaldia** zineman.
Xabier Ansa – Patagonia
Felix Inurrategi – Pumori (Himalaya)

Maiatzak 28, asteartea

- 7-etan Mahaingurua: **Esoterismoa edo ahalmen ezkutua** (karta astralak ere irakurriko dira). Zineman.

Maiatzak 29, asteazkena

- 7-etan **Magia saioa**, mago ospetsu baten eskutik, zineman.

Maiatzak 30, osteguna

- 7-etan Mahaingurua: **"Ehiza bai! Bai?"**
Hizlariak: ehizaren aldeko elkarteko eta ehizaren aurkako ekologista taldeko ordezkariak eta antropologo bat.

Maiatzak 31, ostirala

Zinemaren eguna

- 10,30-etan **Umeentzako filma:**
"Asterix el galo".
3-etan **Gazteentzako filma:**
"El secreto de la pirámide".
5-etan **Txokolatada** plazan.
7,30 eta 10,30 **Filma:** "Los intocables de Eliot Ness".

Ekainak 1, larunbata

- 11-etan **Umeei eskeinitako goiza** zineman.
(Txo txongiloa)
5-etan **Intsumisioa eta desertzioari** buruzko mahai-ingurua AURRERAn. Partaideak: MOC, KAKITZAT eta SANTI KIROGA preso egondako intsumisioa.
8,30-etan **Antzerkia:** "Komedi Zaharrak" (Antxieta taldea) Zineman.

Gauean Jarauta 69 txaranga arituko da.

Ekainak 2, igandea

XI. ESKULANGINTZA ERAKUSKETA

- 11-etan Erakusketa zabalduko da.
12-etan **Herri Kirolak**. Sarako Indarra taldea **Bertsolariak:**
Lizaso, Arozena eta Euzkitze.
2,30-etan **Zikiro jatea** frontoian.
6,30-etan **Trikitilarien emanaldia** plazan:
Kepa, Zabaleta eta Imanol.
7,30-etan **Zozketa.**

Egunean zehar, txaranga ariko da.

Udaletxeko aretoetan

Liburu eta disken azoka (aste osoan)

Filatelia, buzingintza eta txartelen erakusketa (astelehenetik aurrera)

Guratz Mendi elkartearen

Bidriera erakusketa

Azkenik !

Leitzatik Ezkurrako gainerainoko bidea konponduko dute

ANTTON ERKIZIA

Leitzatik Ezkurrako gaineraino doan bidea (NA-170), lau kilometro terdikoa, konpontzera doaztela, badirudi, azkenik. Eta azkenik esan dugu, erabat hautsita dagolako bide hori aspalditxo hon-tan, eta jendea haserre sumatzen delako. Herriko Udalak ere hamaika aldiz azaldu dio eskaera Dipu-tazioari.

Orain, bai, ofizialki egun hauetan (egun haue-tan, noski!) esan dute konpontzera doaztela, ia 86 miloitako (85.811.666 pe-zetatako) aurrekontuarekin eta obra guztia bukatzeko bost hilabeteko epearekin.

Horrela adierazi du be-rriki, Garraio, Komunika-bide eta Herri Lanetako kontseilaria den Antonio Aragonek.

“Putzenborda” erosteko asmoa

azaldu zuen Eak azken Udal Batzarrean. “Irigoie-nea” jatorriz izena duen baserri hau eta bere lurrak ere hiru miloi terdi - lau miloietan herriak erosteko proposamena, larretako, ez zen onartua izan. “La Mi-

lagrosako” zinegotzi batek arrazoitu zuen bezala, “nola ba, herrian etxe batzuk sal-du eta baserri bat erosi Udalak, zertarako?”.

HBk ere ezezkoa eman zuen.

“Aurrera” elkartean hauteskundeak

Lehengo asteburuan egin zen Batzarra, eta ber-tan, egindako lanaren bal-antzea, kontuak eta Ba-tzordea berritzeko puntuak zeuden.

Udal hauteskunde mahaiak osatuak

Udal eta Nafarroako parlamenturako eginen di-ren hauteskundeetan, ma-haiburu eta mahaikideak honako hauek izanen dira:

Mahaiburu:

Patxi Irijalba, Tomas Alkoz, Juanito Lasarte eta Benito Riaño.

Mahaikide edo boka-lak:

Inma Zestau eta Joaquin Arrupea; Arantxa Aldun-tzin eta Manuel Arangoa; Inma Lizarraga Larraz eta Martin Martinez; Felix Roda eta Angel Mari Lar-go.

Denetatik pixko bat XIII. Kultur Astean



Taloak plazan, Leitzeko Kultur astearen ezaugarritariko bat



Aieneko Maria



Sorobarrenko Joxe Antonio



Aizkorak: lana eta Leitzeko kulturaren zati bat

GOIZUETA

Euskara Batzordeak bigarren bertso-paper lehiaketa antolatu du

ESTEBAN AROZENA

Bertsolaritza gure herrian suspertu nahiean Euskara Batzordeak antolatzen dituen ekintzen barranean, bigarren bertso-paper lehiaketa martxan jartzea izan da azken erabakia, era honetara duela bi urte burutu zen lehen edizioari jarraipen bat ematen zaiolarik.

Orduan bezala Goizuetar eta Aranoar bertsolariei mugatua dago lehiaketa hau, eta partaideen adinak kontutan harturik ondoren aipatzen ditugun lan hauek burutu beharko dituzte: 12 urte artekoek lau bertso, txapeldunak 4.000 pezeta

eta bigarrenak 2.000 pezetatako saria jasoko dutelarik; 16 urte artekoek 6 bertso, baina hemen saria ere bikoiztu egiten da, hau da, txapeldunak 8.000 pezeta eta bigarrenak 4.000. Helduei dagokionez, 8-10 bertsoz osatutako lanak aurkeztu beharko dituzte, txapeldunarentzako 15.000 pezetatako saria prestatu delarik. Maila honetako bigarrenak 8.000 pezeta jasoko ditu.

Mota honetako lehiaketetan ohi den bezala, bertsoak izengotti edo seudonimo batez sinatuko dira, erabilitako izengottia eta benetazko izena beste sobre batean sartuz. Ondo-



ren, "korreos"-en buzoiaira bi sobre hauek bota behar dira, antolatzaileek handik jasoko dituztelarik. Dena den, prozesu honi buruzko zalantzaren bat sortuko balitz Euskara Batzordekoengana jo daiteke argi-

tasunak eskatuz.

Azkenik esan, lan hauek aurkezteko epea Ekainaren 2an bukatuko dela, datorren hilaren 15ean burutuko den bertso afarian ezagutzera emango direlarik irabazleen izenak.

EROSLE

Tfnoa: 63 72 64 - LESAKA

EROSKIn zegoen jenero eta promozio berdinarekin eta... Deskuentoak sozioentzat

Drogeria MOLINERO



Paperak
Pinturak
Moketak
Drogeria



Tfnoa: 63 02 40
Eztegara 19
BERA

MANOLO TABERNA

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,
Ardoak, Likorrak,
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA

EZKONTZAK

Lazaro Estanga Gorosterrazu eta **Maribel Santesteban Santesteban**, Eratsun eta Zubietakoa, Maiatzaren 11an.

Francisco Jabier Elizetxe Telletxea eta **Asun Mariezkurrena Mariezkurrena**, Elizondo eta Leitzakoa, maiatzaren 11ean.

Antonio Alustiza Arzadun eta **Rosa M^a Muniain Irurita**, Are-so eta Zizurkoa, maiatzaren 25ean.
Eduardo Etxarte Txoperena eta **Pili Zunzundegi Goiburu**, Igan-tzi eta Hondarribikoa, Maiatzaren 25ean.

Jose Ramon Otxoteko Irigoien eta **M^a Teresa Maia Mitxelena** Donostia eta Lesakakoa, Maia-tzaren 11an.

JAIOTZAK

Amaia Salbarredi Lazkano, Leitzan, Apirilaren 24ean.

Jonatan Goienetxe Balda, Beran, Apirilaren 19an.

Nerea Anzizar Irazoki, Beran, Apirilaren 19an.

Imanol Arretxea Goñi, Elizon-don, Apirilaren 21ean.

Miguel Elizalde Lago, Lesakan, Apirilaren 29an.

Maria Elizalde Lago, Lesakan, Apirilaren 29an.

Markel Maia Sadaba, Lesakan, Apirilaren 29an.

Marialen Irigoien Fagoaga, Le-sakan, Maiatzaren 10ean.

HERIOTZAK

Santiago Indakoetxea Telletxea, Zubietan, Apirilaren 28an, 76 urte.

Annie Descoins, Saran, 46 urte.

Mixel Larralde, Saran, 80 urte.

Juan Rekondo Zabaleta, Lei-tzan, maiatzaren 10ean, 87 urte.

Miguel Leiza Jorajuria, Lesakan, Maiatzaren 13an, 69 urte.

Jose M^a Igoa Moreno, Berakoa, apirilaren 30ean, 70 urte.

Antonio Sainz Landa, Beran, Maiatzaren 8an, 84 urte.

Facundo Villanueva Iglesias, Beran, Maiatzaren 9an, 45 urte.

B RADIO
BIDASOA



expert

OFERTA:

**TELEFUNKEN SUPER-VHS
VIDEO-KAMARA
178.000 pztatan.**

Kanttonberri 1, Tfnoa: 63 03 77 BERA

BORTZIRI

Itzea 4, behea - BERA

Tfnoa: 63 10 91

- * Asistentzia teknikoaren zerbitzua
- * T.B., Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- * Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu


Mikel Petrirena: EHNE-Nafarroaren lehendakaria

«Merkatuko prezioak ikusirik, Nafarroan gaur ez dago baserri errentagarririk»

«1986an Europako Ekonomi Elkartean sartu gintuztenetik, europako nekazal politika beraren menpean gaude euskal baserritarrak ere», dio Mikel Petrirenak. Politika hau, gerra ondotik hasi zuten finkatzen eta hasierako helbururik nagusia, goserik zegoen Europa janariz hornitzea izan zen. Horrela, bada, gero eta gehiago produzitzea zen garai haietako kontua.

Bainan denborarekin, gosea asetzetik Europan kontsumi zitekeena baino aisa gehiago produzitzera pasatu zen eta orduantxe hasi ziren problemak. Agintariek, nekazal produkzioa ez gehitzeko, topeak ezarri zizkieten baserritarrei, aldiberean, garantiazko prezioak nabarmenki jeitsiz.

Eta ez hori bakarrik, soberran zegoen esne, haragi eta bertze hainbat janari gorde edo altxatzeak zuen kostea, nekazarien bizkar jartzea erabaki zuten agintariek.



Beharrezkoa da bertako nekazal produkzioa kanpokitik gordetzea eta babestea

Gure kasuan, berriz, Europako nekazaritza krisian dagoenean, orduantxe sartu egin gaituzte merkatu horretan konpetitzera; gu baino aisa hobekiago prestatuak eta batez ere, aisa hobekiago lagunduak dauden europear nekazariekin. Ondorioak argi ikusi dira honez gero: «merkatuko


prezioen arabera, Nafarroan gaur ez dago baserri errentagarririk» eta jakina, baserrian ilusioz beterik eta hainbatetan etxaldeak hobetzen inbertsio ederrak egin dituztenak, zer egin ez dakitela daude gaur.

Aldegin? Bertze nonbaitera joan lan bila?

«Kontua da Nafarroako baserriak ez direla konpetitiboak testuinguru horretan; merkatuak ordaintzen dituen prezioekin ez dago errentagarri den baserri-rik» azpimarratzen du Mikelek. «Eta hau erraterakoan ez gara ari, noski, Baztango edota Bidasoaldeko baserri ttikiez. Beti erran digute baserriak haunditu eta meioratu egin behar direla baina halere, oraintxe bertan ITGk Ultzama aldeko baserriak eredutzat hartuz egin duen estudioak, hau da, batz bertze berrogeitasei (46) behi eta behi bakoitzaren urteko esne-produkzioa 6.000 litrotakoa izan arren; baserritarren soldata eta aseguro soziala kontutan hartu gabe, esne litroa produzitzeak 36,50 pzta. balio omen du. Kontu horietan soldata normal bat sartuko balitz, esne litroaren kostea ezin da inola ere 45 pzta azpitik jarri... eta guzi hau erakunde ofizial batek dio, ITGk alegia» azaldu du segidan erreferentzi puntu argia-
goak jarri nahian.

Administrazioak bertako produkzioa babestu beharko luke

Interes soziala dela eta, ez da gauza berria administrazioak sektore ezberdinetako produkzioa eta merkatua babesteko neurriak hartzea. Ezagunak dira, adibidez, industri



Merkatu-prezioekin esne-kosteraren zati bat bakarrik ordaintzen ahal da; gainontzekoa errenta konplementarioarekin beharko luke

sektoreari (AHV, SEAT...) administrazioek luzatu ohi dizkioten laguntza eskuzabalak. Bide honetan zera dio Mikelek: «ez da bidezkoa administrazioak erratea, erraten duen bezala, merkatu legian konpetitzeko gai ez den baserriak desagertu egin beharko duela. Gauza bera erranen balute bertze sektoreentzat, gaur hainbat lantegi sobran leudeke, kanpotik ekarrita bertan eginda baino mer-

keago aterako baita seguru-
enik. Guk erraten duguna zera da: bertze sektoreak lagundu eta kanpoko konpetentzitik gordetzeko neurriak hartzen diren bezala, gauza bera egitea nekazal munduarekin ere. Hori ez badute nahi, hau da, baserri munduak merkatu librean behar badu mugitu, orduan argi dago baserritarrok bertze neurriren batzuk beharko ditugula bizirik segitzeko» aurreratzen du Mikelek.

Errenta konplementazioa

Neurri horien nondik norakoaz galdetutakoan, errenta konplementazioaren sistema azaltzen digu EHNEko lehendakariak. «Baserriko produktuen kostea merkatuak ezin badu ordaindu, administrazioak, laguntza bide serioagoak aztertu beharko ditu; denek onartzen bait dute honez gero, baserria mantentzea beharrezkoa dela gutienez bi arrazoi nagusirengatik: janaria produzitzen duelako eta ingurugiroa zaintzeko funtsezkoa delako. Beraz, baserriak zutik segitzeko, merkatuak kostearen zati bat ordainduko luke eta bertzea errenta konplementarioarekin».

Errenta konplementarioa soluzio bidez jotzen duten galdetzerakoan, «ez dakigu inoiz planteatuko badute ados egonen ote garen edo ez bainan ez dugu onartzen subentzio bide librea jartzea —dio Mikelek—...zuri ehun mila pzta, zuri berrehun...hori, lepotik hartzea izanen litzateke. EHNEk, pauso bat gehiago ematea eskatuko luke; baserri haundienei bakarrik subentzionatu beharrean, baita ttikienei ere, produzitu behar dena nekazari gehiagoren artean egitea ziurtatuz eta zonaldearen arabera, prezio ezberdinak finkatuz.

JOXEMANUEL IRIGOIEN



Berako Gure Txokoa elkarteak 60. urteurrena ospatzen du aurten

*Kirol eta kulturaren arloak bultzatzen segitzen du herrian
1.200 bazkide ingururen laguntzarekin*

Historian zehar zenbait gora-beheren ondoren, indartsu agertzen zaigu gaur egun Berako Gure Txokoa elkarteak. Kirol arloan dituen 8 sekzioen baren 200 kirolari baino gehiago ditu, kultur arloa lantzen duten 100 dantzari inguru eta Arte eta Kultura bokalia batekin batera.

Gure Txokoa Elkarteak, 1931an sortuko da 37 herriarren inizatibaz, Beran kirol eta kultur ekintzak garatzeko.

Elkarteak, herri guztia biltzeko gunea izateko inentzioarekin sortzen da eta, baita ere, geografikoki hurbil dauden herri eta elkarteekin harremanak bultzatu eta sendotzeko asmoz.

Erlijio mailako asmoak ere ezin dira ahaztu kide fundatzaileen sakoneko



Gure Txokoa taldearen lehendabiziko ekipoa

arrazoien artean, "conci-liario" figurarekin. Kargu hau botere haundiko erlijioso batek betetzen zuen eta indar haundia zuen elkarteak, berak aukeratzen bait zuen goi mailako postuak betetzeko jendea.

Hiru etapa nabarmen

Gure Txokoaren 60 urtetako historia, ongi desberdindutako hiru garaie-tan bana daiteke.

Lehenengo etapa, el-

kartearen sorreratik (1931) 60. hamarkadarainokoa litzateke. Garai honetako ekintzak, nagusiki, lau atletan banatzen dira: futbola, pilota, dantza eta txirrindularitza.

60. hamarkadaz geroztik atzerakada nabarmena emanen da. Ia ez daude jarraitasunez antolaturiko ekintzarik eta elkarteak bizirik segitzeko burokrazi tramiteak betetzen dira doi-doi.

70. hamarkadaren hasieran bazkide eta Beratar talde batek, elkarteak berriz indartzeko ardura hartu zuten. Indartze honek, bazkide berri pila ekarri zuen eta, eraberean, elkarteak antolatutako ekintzen gorakada. Orduantxe, al-daketa batzurekin, gaur egun arte iritsi den antolatzeko egitura martxan paratuko da.

Gure Txokoa elkarte bezala indartzeko arrazoiatariko bat, 1974ean



Gure Txokoa Elkartea, 1931. urtean sortu zen 37 Beratarren inizatibaz



Duela hogeit bat urteko taldea: behean ezkerretik bigarrena, Genaro Zelaieta, hainbat urtetan Errealan aritutakoa

Munduko eta Espainako Ziklo-kross txapelketen antolaketa izan zen. Ezin da atzendu, beraien lanari esker estatu mailan Gure Txokoa elkartearen eta Berako herriaren izena zabaltzen lagundu eta laguntzen ari direnak: Genaro Zelaieta futbolean eta Iñaxio Errandonea pilotan.

Garrantzitsua izan zen ere, Gure Txokoak egoitza lortzea 1980an (Iamotenean), bertatik koordinatzen bait dira egin beharreko ekintza guztiak.

Kirola eta kultura

Gaur egun, Gure Txokoa Elkartea 10 sekzio desberdinetan banatzen da. Sekzio bakoitzaren buruan, egin beharreko lanak koordinatzen dituen bokalia dago.

Kirol eta konpetizio esparruan, futbol, pilota, atletismo, txirrindularitza, tenis, Herri Kirolak, igeriketa eta rugbyak 200 pertsona inguru biltzen dituzte.

Instalazio berriak etorkizunerako

Beran egindako eta egin behar diren instalazio berriak, Gure Txokoaren sekzio desberdinetako proiektu eta helmuga berrien garapenean lagunduko dute seguraski.

Kultur arloan, Kultur Etxearen eta Musika Eskolaren sortzea aipatu behar da, eskualde guztiko garapen kulturala bultzatuko bait dute.

Kirol arloan, Gure Txokoarentzat zein Berako herriarentzat garrantzitsuak izanen dira futbol zelai eta atletismo pista berriak egiteko obrak laister bukatzea eta polikiroldegia egiteko proiektua.

Ezin alde batera utzi, azkenik, Gure Txokoa eta herriko kirol eta kultur ekintzen artean dagoen harreman estua, gehien bat elkartearen antolakuntzaz edo laguntzaz burutzen bait dira.



Txirrindulari frogen antolaketan ere lan handia egin du Gure Txokoak aspaldiko urtetan

Hamabostaldiko jokaldiak



Lesakako Beti Gazte futbol taldeko jubenilak.

Jadanik Gipuzkoako Jubenilen lehen mailara igotzea lortu dute denboraldi bikain baten ondoren. Orain, bigarren mailako txapelketarako proiektua jokatzen ari dira.




Eguneroko euri, haize eta eguraldi txarra.

Horrelako eguraldiarekin hainbat kirol ekintza suspenditu edo atzeratu dira eta ez du aldatzeko asmorik. Hala ere, denak ez daude haserre. Galdetu bestela arrantzaleei.

Poteotik alkoholismora

Poteoa gure inguruan, dibertitzeko beste era baten moduan ikusia dago. Lehenengo mozkorraldia, "bataio" soziala bezala hartzen da eta gaztaroan, aurretik ez bada, ematen da. Askotan, "orain gizon bat haiz" bezalako hitzak "akontezimendua" laguntzen dute.

Norberaren aukeragatik edo gustoz baino gehiago besteei imitatzeagatik hasten da edaten eta hor gizar-tearen presioak zerikusi haundia du. Aukerak (bestak, bazkariak, "gau-pasa" bat) dira edaten hastera bultzatzen dutenak. Batzuk probatu eta ez dira hortik pasatuko. Beste batzuk ordea, edanzale arriskugarri-



Edatea osasunarentzat txarra dela jakin arren alkoholdun edarietaz abusatzen duten pertsonak badaude. Hauek dira alkoholikoak

tan bihurtuko dira. 16 urtetik gorako biztanlegoaren artean, laurden batek inoiz ez edo hagitz guttitan edaten du. Beste laurden batek, noizbehinka hartzen du alkohola eta beste erdiak alkoholdun edariak hartzen dituzte egunero edo ia egunero. Azken hauetatik hirutatik bat, hau da, biztanlego helduaren %15a beraien osasuna arriskutan jartzen duten gehiegizko edanzaleak dira. Izan ere, alkohola frustrazioaren laguntzaile, beldur eta beharren lasaigarri eta hutsune pertsonalen betegarri faltsuan bihurtzen da, dependentzia eta ohitura ez osasungarriak sortuz.

ADIMEN OSASUNERAKO
TALDEA (Burlata)

Masaia eta bizkortze ariketak

Txomin Irazoki (Fisioterapeuta)

Astelehenetik ortziratera, 15,30etatik 19,30etara

Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - **BERA**

MASAIARI TITULATUA

PATXI TXOKARRO (Etxalar)

Bizkarrezurra, zirkulazioa, bizkortze ariketak, arnasketa

Ordua eskatzeko, asteazkene-tan 11etatik 1etara 635228ra

ALFA-LAVAL



ZERBITZU TEKNIKO PARTIKULARRA

Tfnoa: 631108 / 630898 - **BERA**



LUR APAL

MEKANOTERAPIA ZENTROA

BIZKARRA - ARTRITISA - ZAINAK - STRESA

Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 63 70 11 **LESAKA**

GAIA

OSASUN-DENDA

BELARRAK-DIETETIKA
EDERGAI NATURALAK

Bittiria 6, Tfnoa: 637410 - **LESAKA**



TALDE-LANEAN, INDARTSU



Etxebizitzak

• **Baztanen liburuden-** da transpasoan. Urteko salmentak demostragarri. Tfnoa: 592245 (egunez), 450730 (arratsetan).

Lana

• **Baztanen edo Dan-** txarinea aldean, etxeko lanetan, komertzioren batean edo jatetxetan lana egiteko prest bi neska uztaile edo abuztuan. Deitu 453344 eta 453174 tfnora.

• **Astelehenetik** ortzilara arte neska edo mutil euskalduna behar dugu bi haur zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 631188.

• **Hiru etxalartar** gara eta udan edo asteburuetan lan egiten genuke. Interesatuak 635092 eta 635144 tfnotara deitu.

• **19 urtetako** neska, hortz protesi laboratorioran eta jatetxetan 2 urtetako esperientzia, haurrak zaintzen edo jende aurreko lanetan aritzea gustatuko litzaioke. Tfnoa: 451518.

Denetarik

• **Silvia Mazizior**-ekin frantses klaseak jaso nahi

badituzu deitu 63 01 08 tfnora.

Salerosketak

• **Erleak** eskeintzen ditugu. Etxe paretan daude. Tfnoa: 637278.

• **Ordenadorea** salgai. Inves PCX 10, 3,5eko bi disketerakoa, inprimagailua, WordStar eta mahaia, berri berria.90.000 pzt. Tfnoa:634126, gaez.

• **Mountain bike** bigarren eskukoa erosiko nuke. Tfnoa: 634165.

• **Bi txakurkume** eta **bi ahuntz** bere antxumeeekin eskura ohituak saltzen ditut. Tfnoa: 504492.

• **Frigorifiko** "Fagor" ona salgai, 20.000 pztatan. Tfnoa: 610794 Leitza.

• **Sukalde** batetako formikazko altzariak salgai oso prezio onean. Erabili gabe eta plantxatzeko tablarekin. Tfnoa:637872.

• **Bitrina-kamara** bi, harakindegirako salgai. Berriak daude eta merkeak. Tfnoa.: 637872.

• **Borsini akordeoia**, 120 bajuekin, tekkladun basetiekin eta egoera ezin hobean salgai. Tfnoa: (943)

624070.

• **Bi behi** emari (7 urteko holandesa eta 4 urteko pirenaika) salgai. Baita ordeñadora bat ere. Tfnoa: 637 461.

• **Esne tanke** bat salgai dago, ALFA-LAVAL markakoa 445 litrokoa. Kondizio onean dago. Tfnoa: 599176 (Urdazubi).

Harremanak

• **Elizondoko** Josunentzat:buruan daramat globoa, 80 egunetako munduko itzuliarekin konparatuz tontakeria da. Pupas.

• **Zorionak** gure iloba Axirentzat eta muxu haundi bat Etxalarko izeben partetik. "Kaxen aio aio". Ana eta Goretti.

• **Leitzako** Boskoitzari, 8. maila (Oerni), oso onak zaudetenez, zuekin enroillatzea espero dugu. Guapoak gara baina ez kreidoak. Igandean zuengana hurbilduko gara.

• **Miguel** eta **Gorkak** eskualde honetan lan egiten dugun Iruñeko bi mutil euskaldunok, hemengo

euskalkia ikasi nahi dugu. Horretarako astelehenetik ortzegunera edozein ordutan bueltatxo bat ematea gustatuko litzaiguke solasean aritzeko. Tfnoa: 581227

• **Txepe, Kolorau** eta **Raulentzat**: Oso mutil jatorrak zarete, baina kontuz ea zer egiten duzuen Lasarte eta Zumarragako neskatoekin. Maitasunez Leitzako Ana eta Mariren partez. Goraintziak.

• **Erratzuko** M^a Marrentzat: Zure titi ederretaz maitemindurik nago. Erratzuko bestetan... "pipe bezala". Musu eder bat titi tartean.

• **Arraiotzko** mutil eta Urrotzko neska maitemindubati zorionak. Lagun bat.

• **Narbarteko** Juan M^a eta Nabo mutil zaharrentzat: Igandero elkar ikusten gara eta zuetaz eroturik gaude. Zuek zarete gure lorategiko lore politenak. Gartzaingo F.E. eta G.J.

• **Zorionak** eta aunitz urtez gure Hostaizkari. Pentsioa azkar kobratzea espero dugu. Bi kolega.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRIGURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: _____

ttipi-ttapa


Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!


IZEN-DEITURAK _____
 HELBIDEA _____
 HERRIA _____

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



Aginte politikoa behar dugu
Madrilek E.E.E.rekin dituen, komenientziak
eta nahikeriak inposa ez diezazkigun.



Zure botua
HERRI BATASUNA

Gure lana,gure Herriaren alde

Hamar botu nazionalistetatik
zazpi Parlamentutik kanpo
geratzen dira.

EUSKO ALKARTASUNA da Foru
Parlamentuan agertuz, Nafarroaren
modernizazio eta garapenaren alde
etengabe lanean ari den naziona-
lismo demokratikoa ordezkatzeko
duen Talde bakarra.

Eraginkorki jokatu beraz. Zure
botua alferrik ez galtzeko.

EMAN BOTOA



eusko alkartasu

